

Azpirotz

A-15 errepidea, KP: 131,000



Gunearen deskribapena

Leitzarango autobia egin zenean eraikitako atsedenekua da, eta oso harrera ona du, Malloetara eta Araitzera bista ikusgarriak baititu. Leitzarango autobia ezkerrean dago, Azpirotzko tunela baino justu lehenago. Aparkalekua, lorategia eta begiratokia ditu, hainbat mailatan:

- Aparkalekua autobia maila berean dago, eta irudi apaingarria duen irlatxo baten bidez bereizita dago galtzadatik.

Aparkaleku-plazen ondoan zuhaitzak landatu dira duela gutxi.

- Lorategia errepidearen mailaren azpitik dago. Bertan dira belardia, espezie desberdinetako zuhaitzak, 5 mahai-multzo eta harrizko 2 banku, paperontziak eta zurezko hesia.

- Lorategi-eremuaren eta aparkalekuaren artean ezponda bat dago. Ezponda hori gainditzeko arrapala lauzatu bat eta sartzeko eskailerak daude. Zurezko hesi baten bidez babestuta daude. Ezpondak zuhaitz eta zuhaixka espezie desberdinak ditu.

- Begiratokia lorategi-eremuaren maila berean dago, hormigoizkoa da eta metalezko hesi batez babestuta dago. Begiratokiaren gainean, panel bat dago, inguruko eremuaren eskema bat duena. Mantentze-lanetarako (batez ere garbiketarako), begiratokiaren azpian eta alboetan dauden ezpondak ere sartzen dira.